



Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa
& Beatriz Fernández (ed.). 2022. Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) (3. arg.).

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?h=eu>].

ISBN: 978-84-1319-456-1.

data: 2024-11-05

ii. Aditz laguntzailearen alternantzia

ii.1. **edin/ezan* perpaus erlatiboetan: *pozgarri zekizkion hitzak* (v *pozgarri zitzaizkion hitzak*)

Egilea: Itziar Mendizabal

Nola aipatu: Mendizabal, Itziar. (2022). **edin/ezan* perpaus erlatiboetan: *pozgarri zekizkion hitzak* (v *pozgarri zitzaizkion hitzak*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=62&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, erlatiboak, erro alternantzia, modua, subjuntiboa

Deskribapena

Perpaus erlatiboak mendeko perpausak dira, perpaus nagusiko izen sintagma modifikatzen dutenak (Oihartzabal 1983; Euskaltzaindia 2011; Krajewska 2017). Mendeko perpausoko izen sintagma isildu egiten da, perpaus nagusiko izen sintagmaren erreferentziakide delako (Euskaltzaindia 2011; Krajewska 2017; Oihartzabal 1983), eta erreferentziako sintagma hori ‘aurrekaria’ izenez ezagutzen da (Lafitte 1944; Euskaltzaindia 1999), nahiz eta mendeko perpausaren aurretik (1) edo ondoren (2) ager daitekeen (Oihartzabal 2003; Krajewska 2017). Erlatibozko egitura ugari ditugu euskaraz, baina ohikoena *-(e)n* menderagailua erabiliz osatutakoa da. **Menderagailua** mendeko perpausaren azken posizioan kokatzen den aditz jokatuari eransten zaio (*itzuli du-en*) (Oihartzabal 1983; Euskaltzaindia 2011; Krajewska 2017).

(1)	[Etxeberrik [Etxeberri.ERG	berriki berriki	itzuli itzuli	du-en] (3ABS).edun.3ERG.EN]	eleberria eleberri.ABS	erosi erosi	dut dut
(2)	Eleberria, Eleberri.ABS	[Etxeberrik [Etxeberri.ERG	berriki berriki	itzuli itzuli	du-en-a], (3ABS).edun.3ERG.EN.ABS]	erosi e rosi	dut dut

Oro har, perpaus erlatiboetan *izan* edo **edun* aditz laguntzaileak edo kopulak azaltzen dira (3), nahiz eta perpaus erlatiboa ahalezkoa edo baldintzazko ondoriozkoa bada, **edin* edo **ezan* aditz laguntzaileak **erabiltzen diren** (4).

(3)	pozgarri pozgarri	zitzaizkion (3ABS).izan.PL.APP.3SG.DAT.PST	hitzak hitzak	esaten esaten	hasi hasi	zen zen
(4)	irabazi irabazi	dezakedan (3ABS).ezan.1SG.ERG.EN	lasterketan lasterketan	aurkeztuko aurkeztuko	naiz naiz	

Hizkera batzuetan, baina, ahalezkoak edo baldintzazko ondoriozkoak ez diren perpaus erlatiboetan ere **edin* edo **ezan/egin* azal daitezke *izanedo* **edunen* ordez (4):

(5)	pozgarri pozgarri	ekiozan (3ABS).edin.APP.3SG.DAT.PL.PST	berbak berbak	esaten esaten	hasi hasi	zan zen
-----	----------------------	--	------------------	------------------	--------------	------------

Banaketa dialektala

Euskaltzaindiaren (2021) arabera, gaur egun euskalki gehienetan *izan* eta **edun* aditz laguntzaileak edo kopulak agertzen dira perpaus erlatiboetan (3), ahalezkoak edo baldintzazko ondoriozkoak ez badira behintzat. (4) adibideko eredu, berriz, mendebaleko euskalkietan aurki daiteke; baina Euskaltzaindiak (2021) dioenez, lehenago beste euskalkietan ere aurki zitekeen hizkera eredu hori. Hain zuzen ere, Mounoleren (2011) hitzetan, XVI. mendean oso ohikoa zen perpaus erlatiboetako

aditz laguntzaileetan *edin, *ezan edota egin erroak agertzea.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean (4) hizkera eredua Getxon baino ez da jaso. Zuazoren (2014) sailkapenaren arabera, Getxoko hizkera mendebaleko euskararen ipar-sartaldeko azpieuskalkian kokatzen da; zehazkiago esateko, Uribe Kostako hizkeran. Ondorioz, datu-basean jasotakoa bat dator aurretik Euskaltzaindiak (2021) azaldutakoarekin.

Eztabaida teorikoa

Mounoleren (2011) arabera, ugariak ziren *edin edo *ezan/egin aditz laguntzaileak ageri ziren perpaus erlatiboak XVI. mendean, eta oro har, kasu horietan erlatiboaren aurrekaria entitate bizigabea izan ohi da. Jasotako (4) adibideak ere azalpen hori berresten du, erlatiboaren aurrekaria den *berbak* bizigabea baita. Bestalde, badirudi beti balio murrizgarria (edo Mounoleren (2011) hitzetan, ‘ez-erreferentziala’) hartzen duela egitura horrek; hau da, erlatiboak beti aurrekaria murrizten edo mugatzen duela (Euskaltzaindia 1999, 2021; Goenaga 1980; Oihartzabal 2003). Eta berriz ere, (4) adibidea bat dator baieztapen horrekin, adierazi nahi dena ez delako *berbak* orokorrean, zehazki *pozgarri ekiozan* haiek baizik. (3) gisako adibidearen kasua, berriz, desberdina da: esan bezala, *edin, *ezanedo eginaditz laguntzaileak dituzten erlatiboek balio murrizgarria soilik izandezakete, baina *izan* edo *edun duten erlatiboek balio murrizgarria ez ezik balio ez-murrizgarria (edo Mounolek (2011) dioenez ‘erreferentziala’) ere badute; hau da, aurrekaria mugatu beharrean hari buruzko informazioa gehitu dezakete (Euskaltzaindia 1999, 2021; Goenaga 1980; Oihartzabal 2003). Beste era batera esateko, (3) adibidearen kasuan *pozgarri zitzaizkion hitzak* esatean ez da argi geratzen (4) adibidean bezala *hitzen* artean zehazki *pozgarri zitzaizkionak* adierazi nahi den, edo besterik gabe *hitzak esaten hasi zen* eta *hitzak pozgarri zitzaizkion* adierazi nahi den. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago interpretazio murrizgarriari dagokionez ez dagoela bi egituren arteko desberdintasun semantikorik.

Aipamenak

Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak 1*. Bilbo:

Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]

Euskaltzaindia. 2011. *Euskal gramatika. Lehen urratsak VII. Perpaus jokatu gabeak*.

Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Krajewska, Dorota. 2017. *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.

Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]

Mounole, Céline. 2011. *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Ph.D. Diss.,

UPV/EHU and Université Michel de Montaigne-Bordeaux III.

Oyharçabal, Beñat. 1983. Euskarazko erlatiboez oharño bat. In *Euskaltzaindia (arg.)*, *Piarres Laffiteri omenaldia*. Iruñea: Aranzadi. 517-528.

Oyharçabal, Beñat. 2003. «Relatives». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.) *A grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 762-823.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

ii.2. Forma (di)trantsitiboetako aditz

laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo: -gi- (v -za-)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Forma (di)trantsitiboetako aditz laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo: -gi- (v -za-). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=16&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, erro alternantzia, modua

Deskribapena

Euskara hainbat erroz baliatzen da aditz laguntzaileak sortzeko. Erroa desberdina da aditzaren iragankortasunaren arabera (iragangaitz v iragankor) eta moduaren arabera (indikatiboa eta baldintza v gainerakoak).

Aditz inakusatiboen indikatibozko eta baldintzazko formetan laguntzailea *izan* (1) da, eta inergatibo eta iragankorren kasuan, berriz, **edun* (2). Subjunktiboan, ahaleran eta aginteran, aldiz, beste erro batzuk lekukotzen dira. Aditz inakusatiboen kasuan **edin* (-di-) da erroa (3).

(1)	etorri	naiz
	etor.PTCP	1SG.izan

(2)	egin	dugu
	egin.PTCP	(3ABS).edun.1PL.ERG

(3)	etor	nadin
	etor	1SG.edin.COMP

Inergatibo, trantsitibo zein ditrantsitiboetan, ordea, bi erroren arteko alternantzia dialektala topatzen dugu. Eredu orokorra jarraitzen duten hizkeretan **ezan* da indikatiboz kanpoko forma iragankorren erroa eta *-za-* formarekin agertu ohi da (4a subjunktiboan, 4b ahaleran eta 4c aginteran). Hizkera ereduan, berriz, *eginen* erroa erabiltzen da aditz laguntzailea sortzeko, hots, *-gi-* (5).

(4a)	egin	dezagun
	egin	(3ABS).ZA.1PL.ERG.COMP
(4b)	egin	dezakegu
	egin	(3ABS).ZA.POT.1PL.ERG
(4c)	egin	ezazu
	egin	(3ABS).ZA.1PL.ERG

(5a)	egin	dagigun
	egin	(3ABS).GI.1PL.ERG.COMP
(5b)	egin	dagikegu
	egin	(3ABS).GI.POT.1PL.ERG
(5c)	egin	egizu
	egin	(3ABS).GI.1PL.ERG

Eredu orokorraren kasuan erabiltzen den erroak (**ezanek*) gaur egun aditz laguntzaile gisa baino ez du funtzionatzen. *Eginek*, aldiz, balio bikoitza dauka gaur egun, aditz nagusia zein laguntzailea izan baitaiteke.

Bestalde, bi erro hauetaz gain hirugarren bat ere badauka euskarak kasu hauetarako, ekialdeko euskalkietan lekukotzen dena, *-iro-* (6), hain zuzen ere (Hualde 2003b: 229). Aditz laguntzaile hau, ordea, ez dugu txandakatze honetan jaso, baina **ezanen* eta *eginen* kidekoa da.

(6)	egin	dirogun
	egin	(3ABS).IRO.1PL.ERG.COMP

Datu-basearen emaitzak

Hizkera eredua mendebal zabalean lekukotzen da, hots, mendebaleko euskalkian, erdialdekoaren zati batean (Beizama eta Azpeitia, besteak beste) eta Nafarroaren mendebaldean (Urdiainen). Gainontzeko euskalkietan ez da lekukotzen.

Hala ere, *-za-* eta *-gi-*ren arteko banaketa ez da dirudien bezain zurruna. Izan ere, garai batean **ezan*

orokorra zen (Mitzelena 1960), baina mendebalean galduz joan da *egin* zabaltzearen ondorioz. Hori dela eta, zenbait hizkeratan biak ager daitezke.

Aipamenak

Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.

Mitzelena, Koldo. 1960. «Gipuzcoano y vasco». In Joseba A. Lakarra and Iñigo Ruiz Arzalluz (eds.), *Luis Michelena. Obras Completas. VII. Fonética y Fonología, Morfosintaxis y Dialectología*. 697-700.

ii.3. Indikatiboa aginte perpausetan: *ez haizela joan* (v *ez hadi joan*)

Egilea: Irati Huarte

Nola aipatu: Huarte, Irati. (2022). Indikatiboa aginte perpausetan: *ez haizela joan* (v *ez hadi joan*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=59&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, agintera, ezeztapena, modua, subjuntiboa

Deskribapena

Oro har, aginte perpausetan adizki analitikoak agertzen direnean **edin/*ezanaditz* laguntzaileak erabiltzen dira, baiezko nahiz ezezko formetan:

(1)	Ez	hadi	joan
	ez	2ABS.edin	joan

Zenbait hizkeratan, ordea, ezezko aginte perpausetan *izan* indikatiboko aditz laguntzailea agertzen da:

(2)	Ez	haizela	joan
	ez	2SG.izan.COMP	joan

Banaketa dialektala

*Izanaditzaren erabilera hau behe-nafarreraren ezaugarria da (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 361).
Honako adibidea ematen du Euskaltzaindiak (1987 [1997]: 361):*

(3) Ez hizala horrela mintza!

Behe-Nafarroaz gain, Nafarroako Baztan eskualdean ere fenomeno hau erabiltzen da. Erraterako, nik jasotako Zigako mutil gazte baten lekukotasuna da hau:

(4) Ez haizela bertara joan, arriskutsua da eta

Elizondon ere lekukotzen da, honakoa erran zuen bertako mutil gazte batek (neronek jasoa):

(5) Ez haizela lasterka itera gan
'Ez haizela laisterka egitera joan'

Datu-basearen emaitzak

Datubaseko emaitzetan ikus dezakegu Lapurdin eta Nafarroan *izan* erabiltzen dela. Lapurdin, Ziburuko lekukotasun bat dugu eta Nafarroan, Baztango eskualdeko Arizkun herriaz gain, Orbaizetan ere lekukotzen da. Hala ere, Arbizu, Goizueta eta Mezkiritz herri nafarretan **ezan/*edin* erabiltzen da.

Euskaltzaindiak (1987 [1997]: 361) behe-nafarrerazko ezaugarria dela dioten arren, datubaseko emaitzetan kontrakoa ageri da, izan ere, Oragarreko inkestatuak **edin/*ezandarabil* ezezko aginte perpausetan.

Bukatzeko, emaitzek erakusten dute bertze hizkeretan ere (zubereraz eta erdialdeko eta mendebaleko hizkeretan) **edin/*ezan* aditz laguntzaileak agertzen direla.

Aipamenak

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

ii.4. Egitura ditransitiboetako aditz laguntzaileak (-i, -ts, -ra)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Egitura ditransitiboetako aditz laguntzaileak (-i, -ts, -ra). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=17&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, aplikatiboak, arazleak, datibo ikurra, datibo komunztadura/klitikoak, datiboak, erro alternantzia, forma ditransitiboak, P txertaketa

Deskribapena

Datibo klitikoan aurretik morfema aplikatibo (APPL) bat lekukotzen da sistematikoki aditz jokatuan, literaturan *dative flag* edo euskaraz, *datibo ikurra* izenez ezagutzen dena Trask-ez geroztik (1997, 1981). Indikatibozko eta baldintzazko forma ditransitiboetan, morfema aplikatibo honen forma morfologikoa *-i* da. Morfema honek, baina, ez du forma morfologiko bat bera hartzen hizkera guztietan, batez ere adizki analitikoetan. Horregatik, hiru eredu bereizi ditugu morfemaren itxuraren arabera: eredu orokorra (1), lehen hizkera eredu (2) eta bigarren hizkera eredu (3).

(1)	eman eman.PTCP	dizut (3ABS).edun.I.2DAT.1SG.ERG
(2)	eman eman.PTCP	deutsut (3ABS).edun.TS.2DAT.1SG.ERG
(3)	eman eman.PTCP	d(er)autzut (3ABS).CAUS.edun.TS.2DAT.1SG.ERG

Eredu orokorrean, aplikatiboaren forma *-i* da, (1) adibideko *dizut* forman bezala. Aditz forma hauetan (1), egile batzuen ustez bederen (Hualde 2003b), erroa **edun* bera da, hots, forma iragankorretan lekukotzen den bera. Hala bada, orduan forma ditransitiboetan, **edun* aditz laguntzaileak ez dauka ageriko markarik (*-u-*). Eredu hau (1) erdialdeko hizkerek jarraitzen dute.

Mendebalean eta ekialdean, berriz, morfema aplikatiboak bestelako formak hartzen ditu. Lehen hizkera eredu, mendebalekoan, morfema aplikatiboa ez da *-i-*, *-ts-* baizik. Bestalde, **edun* aditz

laguntzailearen erroa (-u-) agerian dago (*deutsut*).

Bigarren hizkera ereduak ekialdean lekukotzen da. Hemen ere morfema aplikatiboa -ts- da eta erroa agerian dago, baina aplikatiboaz eta agerizko erroaz gain, -ra- arazlea ere haien aurretik (*derautzut*). Pentsatzekoa da garai batean forma hauek egitura arazleekin zerikusia izan zezaketela, morfema arazlea baitute tartean. Gaur egun, ordea, artizki hori ihartuta dago. Hori dela eta, batzuetan morfemaren arrasto bat baino ez da agertzen (*dautzut*).

Datu-basearen emaitzak

Esan bezala, hiru ereduak mendebalaren, erdialdearen eta ekialdearen artean banatzen dira. Eredu orokorra erdialdean lekukotzen da: Gipuzkoa gehienez (mendebaldea salbu), Lapurdiko ipar-mendebaldean (Ziburun) eta Nafarroako zati handi batean.

Lehen hizkera ereduak mendebalean lekukotzen da: Bizkaian, Araban eta Gipuzkoako mendebaldean (Bergaran).

Azkenik, bigarren hizkera ereduak ekialdean aurkitzen dugu: Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa ekialdean (Baztanen eta Orbaizetan). Hauetaz gain, eremutik ateratzen den herri bat ere agertzen zaigu eredu honetan, Nafarroa mendebaldeko Urdiain herria, hain zuzen ere.

Eztabaida teorikoa

Dena den, egile guztiak ez daude ados hemen proposatutako deskribapenarekin. Batzuen ustez, eredu orokorreko aditz laguntzailea ez da *edun*, **i(n)* baizik, *emanen* baliokide zaharra dena, ezta **edun* ere hizkera eredu bietan lekukotzen dena, ez bada **edutsi* eta **eradun*, mendebaleko *deutsut* eta ekialdeko *derautzut* formetarako, hurrenez hurren. Ildo honen arabera, hortaz, forma iragankorrek eta ditransitiboek erro desberdinak dituzte, eta ditransitiboei hiru erro dagozkie indiaktiboak eta baldintzako formetan, ez bat bakarra. Forma ditransitiboetan, -i- errotzat jotzen dutenek, jakina, ez diote aplikatibo estatusik aitortzen.

Aipamenak

Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.

Trask, Larry. 1981. «Basque verbal morphology». In *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak [Iker 1]*. Bilbo: Euskaltzaindia. 285-304.

Trask, Larry. 1997. *The history of Basque*. London: Routledge.

ii.5. Egitura iragangaitz datibodunak: *zakidan*, *dakit*

(v zitzaidan, zait)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Egitura iragangaitz datibodunak: *zakidan, dakit* (v *zitzaidan, zait*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=18&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, aplikatiboak, datibo ikurra, datibo komunztadura/klitikoak, datiboak, erro alternantzia, iragangaitz datibodunak, P txertaketa

Deskribapena

Indikatibozko aditz forma iragangaitz datibodunak *izan* erroaren gainean eraikitzen dira, datiborik gabekoak bezala. Forma datibodun hauek morfema aplikatibo bat daramate datibo klitikoaren aurretik, forma ditransitiboan gisan. Morfema hau, ordea, ez da morfologikoki bera hizkera guztietan, eta hizkera batzuetan, gainera, orainaldiaren eta lehenaldiaren arteko bereizketa egiten da aplikatiboaren formari dagokionez.

Eredu orokorraren arabera, lehenaldiko forma iragangaitz datibodunak *zitzaidan* bezalakoak dira (1). Bertan litekeena da izan aditzaren erroa bera (-za-) eta i aplikatiboa bereiztea, forma hauetan guztietan *-(t)zai-* agertzen da-eta. Orainaldian ere lekukotzen da morfema hau (2).

(1)	Etorri etor.PTCP	zitzaidan (3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST
(2)	Etorri etor.PTCP	zait (3sg.ABS).(izan).APPL.2SG.DAT

Nafarroako zenbait hizkeratan, ordea, iraganekeo formetan *-ki* morfema aplikatiboa agertzen da datibo klitikoaren aurretik. Honenbestez, *zitzaidan* bezalakoan ordez *zakidan*en modukoak erabiltzen dira hizkera hauetan (Zuazo 2013: 73). Forma hauek hizkera eremuan sartu ditugu (3).

(3)	Etorri etor.PTCP	zakidan (3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST
-----	---------------------	---

Horrez gain, hego-sartaldeko azpi-euskalkian, alegia, Sakanan, *-ki* morfemak hedadura handiagoa dauka, orainaldiko formetan ere agertzen baita (Zuazo 2013: 47). Orainaldian ere *-ki* daukaten hizkerak azpi-hizkera ereduari sartu ditugu (4).

(4)	Ahaztu	dakit
	ahatz.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT

Banaketa dialektala

Zuazoren (2013: 73) esanetan, hizkera ereduko ezaugarri hau (3) euskara nafarrari dagokio, baina ez bere osotasunean, ipar-sartaldea eta Baztan kanpo gelditzen baitira. Azpi-hizkera eredu (4), aldiz, hego-sartaldeko azpi-euskalkian aurki daiteke, Sakanan alegia (Zuazo 2013: 47).

Datu-basearen emaitzak

Guk aztertutako hizkeren artean Erroibarren eta Arbizun baino ez da lekukotzen hizkera eredu (3). Azpi-hizkera eredu (4), berriz, guk aztertutako hizkeren artean Arbizukoan baino ez da lekukotzen.

Eztabaida teorikoa

Orain arte egitura iragangaitz datibodunetarako *izan* erroa eta morfema aplikatiboa proposatu ditugu. Hala izanez gero, *-ki* forma ditransitibo sintetikoetako morfema aplikatiboarekin (euskalaritzan *datibo ikur* bezala ezagutzen denarekin) lotuta egon liteke.

Dena den, hau ez da dagoen ikuspuntu bakarra. Izan ere, Zuazok (2013: 73) *-ki* errotzat dauka. Ikuspuntu honen arabera, txandakatze hau aditz erroaren alternantzia gisa ulertzen da.

Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

ii.6. *Izan-en orde* **edun inakusatibo*

datibodunekin: *gustatzen nau, gustatzen dizu (v zait, zaizu)*

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). *Izan-en ordeaz *edun inakusatibo datibodunekin: gustatzen nau, gustatzen dizu (v zait, zaitzu)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=19&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, datiboaren lekualdatzea, erro alternantzia

Deskribapena

Eredu orokorra: Euskarazko perpaus inakusatiboek (subjektu Egilerik ez duten perpaus) *izan* aditz laguntzailea hautatzen dute, bai datibogabeek eta baita datibodunek.

(1)	Niri	marmitakoa	gustatzen	zait
	ni.DAT	marmitakoa.ABS	gusta.IPFV	(3ABS).izan.1SG.DAT

Lehendabiziko adibide honetan ikus daitekeen moduan, argumentu datiboak zein absolutiboak komunztadura adierazten dute aditz jokatuan.

Hizkera eredua 1: Hizkera batzuetan ordea, datibodun inakusatiboek **edun* aditz laguntzailea hautatzen dute:

(2a)	Niri	marmitakoa	gustatzen	nau
	ni.DAT	marmitakoa.ABS	gusta.IPFV	1SG.ABS.edun

Honako (2a) adibide honetan ikus daitekeenez, datibodun perpaus inakusatiboak **edun* aditz laguntzailea hautatzen du. Kasu hau datibo lekualdatzea gertatzen den hizkera batekoa da, eta gertakari hau lekukotzen den hizkeretan ohikoa denez, 1. pertsonako datibo argumentuek absolutibo komunztadura izan ohi dute, bai perpaus iragankorretan eta baita inakusatiboetan ere (Rezac eta Fernández 2013).

Beste kasu batzuetan, datibodun perpaus inakusatiboak **edun* aditz laguntzailearen joko ditransitiboa hautatzen du:

(2b)	Zuri	marmitakoa	gustatzen	dizu
	zu.DAT	marmitakoa.ABS	gusta.IPFV	(3ABS).edun.2DAT

(2b) adibideko perpaus inakusatibo honek **edun* aditz laguntzailea hautatzen du, eta perpauseko subjektu datiboa 2. pertsona singularra izan arren, honek ez du aditzean absolutibo komunztadurarik adierazten, datibo komunztadurari eusten dio (Fernández 2004: 101). Aurreko (2a) adibideko ereduari jarraituko balu, aditz laguntzaileak *zaitu* behar luke.

Aditz laguntzailatzat **edun* hautatzen duten perpaus inakusatibo datibodunak ez dira 1. eta 2. pertsonara mugatzen, subjektu datiboa 3. pertsonakoa denean ere **edun*laguntzailea ageri da hizkera batzuetan.

(2c)	Aitonari	ez	dio	gustatzen
	aitona.DAT	ez	(3ABS).edun.3DAT	gusta.IPFV

Honako (2c) perpausean ikus daitekeenez, 3. pertsonako subjektu datiboa ageri denean ere **edun* aditz laguntzailearen komunztadura ditransitiboa ageri da, hau da, subjektuak datibo komunztadurari eusten dio, (2b)n bezala. Perpaus honek (2a)ko ereduari jarraituko balio aditz laguntzaileak *du* izan beharko luke.

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Hizkera eredia 1a(**edun* inakusatiboetan + 1.sg. subjektuak absolutibo komunztadura): **edun* laguntzailearen gaineko komunztadura eredu hau datibo lekualdatzea gertatzen den erdialdeko euskalkiaren eta Nafarroako euskararen mugako eremu zabal batean gertatzen da (Hondarribian, Irunen), ez Oiartzunen soilik (Yrizar 1992-II).

Hizkera eredia 1b(**edun* ditransitiboa inakusatiboetan, 2.sg. subjektuak datibo komunztadura): **edun* laguntzailearen gaineko komunztadura eredu honetan subjektuak datibo komunztadurari eusten dio, baina aditz laguntzaile ditransitibo batean, eredu hau Oiartzunen lekukotu izan da era sistematikoan (Fernández, 2004: 101).

Hizkera eredia 1c(**edun* ditransitiboa inakusatiboetan, 3.sg. subjektuak datibo komunztadura): aurreko kasuan bezala, 3. pertsonako subjektuak ere **edun* aditz laguntzailearen forma ditransitiboarekiko adierazten du komunztadura eta hau Oiartzunen lekukotzen da nagusiki (Yrizar, 1992-II: 449).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan, datu-basean emandako erantzunak jaso eta erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, hizkera ereduren baten hedadurak aldaketarik izan duen egiaztatu ahal izateko.

Hizkera eredu 1a: hau izan da hedadura zabalagoa izan duen komunztadura eredu, Irungo (nafarrerako mugako hizkeran) eta Errenteriako (erdialdean) informatzaileek eman baitute honen berri. Oiarzungo berriemailerik egon izan balitz, honek ere eredu honen berri emango zukeen ziurrenik.

Hizkera eredu 1b: Errenteriako berriemaileak baino ez du eman komunztadura eredu honen berri. Ez da Hernaniko hizkeran lekukotu. Hortaz, hedadura murriztagoa izango du inakusatiboetan **edun* darabilen komunztadura eredu honek, Oiarztun eta Errenteria inguruetara mugatuz.

Hizkera eredu 1c: kasu honetan ere, Errenteriako berriemailea izan da 3. pertsonako subjektudun perpaus inakusatiboetan **edun* laguntzailea darabilela aipatu duen bakarra. Beraz, eredu honek ere ez du hedadura handirik izango Errenteria eta Oiarztun herrietatik kanpo.

Eztabaida teorikoa

Euskaraz, perpaus inakusatiboak eratzekoan *izan* aditz laguntzailea erabili ohi da hizkera gehienetan. Hala ere, Datiboaren Lekualdatzea gertatzen den eremuetako batean, Oarsoaldean, perpaus inakusatibo datibodunetan **edun* aditz laguntzailea ageri da. Subjektu datiboa 1. pertsonakoa denean, absolutibo komunztadura adierazten du **edun* aditz laguntzailean. Bestetik, 2. edo 3. pertsonako subjektu datiboa ageri denean, datibo komunztadurari eusten zaio, eta **edun* aditz laguntzailearen joko ditransitiboan adierazten da datibo komunztadura hau.

Argitzeke dago oraindik zein den Datiboaren Lekualdatzearen eta inakusatiboetan **edun* laguntzailea erabiltzearen arteko harremana, izan ere, datiboa lekualdatzen den gainerako hizkeretan (Lekeitio, Oñatin, Ziburun) *izan* aditz laguntzailea erabiltzen da perpaus inakusatibo datibodunetan.

Aipamenak

Fernández, Beatriz. 2004. «Gustatzen nau, gustatzen dizu: aditz laguntzaile eta komunztadura bitxiak perpaus ez-akusatiboetan». In Pablo Albizu and Beatriz Fernández (eds.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker 14 (1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Rezac, Milan and Beatriz Fernández. 2013. «Dative Displacement in Basque». In In Beatriz Fernández and Ricardo Etxepare (eds.), *Variation in datives: a microcomparative perspective*. New York: Oxford University Press. 256-282.

Yrizar, Pedro de. 1992. *Morfología del verbo auxiliar Alto Navarro Septentrional*. 2 vol. Donostia: Gipuzkoako Kutxa.

ii.7. Arazleak: *eragin* (v *arazi*)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Arazleak: *eragin* (v *arazi*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3).

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, arazleak

Deskribapena

12. kapituluaren ikusi dugun bezala, euskarak arazle analitiko, morfologiko zein lexikoak baditu ere, morfologikoak dira emankorrenak eta zeresan handiena eman dezaketenak.

Arazle morfologikoak aditzoinari (oro har ekialdean) edo partizipioari (oro har mendebalean) morfema bat gaineratuta eraikitzen dira, morfema arazlea, hain zuzen ere (Ortiz de Urbina 2003b: 593). Morfema hori, ordea, ez da berbera hizkera guztietan: hizkera batzuek *arazi* darabilte, beste batzuek, aldiz, *eragin*. Morfema honi dagokio atal honetan deskribatuko dugun txandakatzea.

Eredu orokorraren arabera, morfema arazlea *arazi* da (1). Morfema honek, ordea, zenbait alomorfo ditu, euskalkien arabera aurki daitezkeenak: *erazi*, *arazo* edo *arazotu*, besteak beste. Hizkera eremuan, berriz, *eragin* morfemaren bidez sortzen dira egitura arazleak (2).

(1)	Nik ni.ERG	Joni Jon.DAT	liburua liburua.ABS	irakurrarazi irakur.arazi	diot (3ABS).edun.APPL.3SG.DAT.1SG.ERG	
(2)	Nik ni.ERG	Joni Jon.DAT	liburua liburua.ABS	irakur irakur	eragin eragin	diot (3ABS).edun.APPL.3SG.DAT.1SG.ERG

Arazik zein *eraginek* *-ra-* artizki zaharra barnebiltzen dute. Artizki honen bidez sortutako aditzak arazle lexikoetan kokatzen ditugu gaur egun, artizkia ez baita emankorra dagoeneko. Garai batean, ordea, artizki hau zen arazle morfologikoak sortzeko euskarak zuen mekanismoa. Hortik datoz, besteak beste, *ibili* vs *erabili* edo *ekarri* vs *erakarri* bezalako bikoteak.

Gaur egungo arazle morfologikoak sortzeko erabiltzen diren bi morfemek, esan bezala, artizki hau daukate. Haien jatorria, ordea, ezberdina da. Izan ere, *araziren* kasuan ez dago oso garbi zein den jatorrizko erroa, eta sortutako morfema ez da aditz independente baten baliokidea gaur egun. *Eraginen* kasuan, aldiz, *egin* da jatorrizko erroa, eta sortutako morfemak aditz independente gisa ere joko dezake (Ortiz de Urbina 2003b: 593).

Dena den, bi eredu hauen artean aditzaren forma baino ez da aldatzen. Hau da, bi morfemek aditz laguntzaile berberak hartzen dituzte eta berdin jokatzeko dute perpausean.

Datu-basearen emaitzak

Banaketa geografikoari dagokionez, esan daiteke ezaugarri honen banaketa nahiko gardena dela. Ekialdeko eta erdialdeko euskalkiek eredu orokorra jarraitzen dute. Hizkera eredu, berriz, mendebal zabalean lekukotzen da. Ereduen arteko muga Azpeitia (hizkera eredu) eta Beizamaren (eredu orokorra) artean kokatzen da emaitzen arabera. Salbuespen bakarra Bizkaiko Artea herrian aurkitzen dugu, bertan ez baita hizkera eredu lekukotzen.

Aipamenak

Ortiz de Urbina, Jon. 2003b. «Causatives». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 592-607.

